




Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna

Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzei hitza ematea



Gutuna: eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzei hitza ematea





Hizkuntza bat erabiltzeak indartu egiten du Erabili hizkuntza, ez galdu!

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna hizkuntzen aldeko etorkizun baten alde sinatu duten estatuen arteko itun paregabea da.

Hizkuntzen gainbehera geldiarazi eta are alderantzikatu egin daiteke, herrialde askotako hainbat adibidek erakutsi dutenez: belaunaldi gazteak norberaren familian eta eskualdean hitz egin izan dituzten hizkuntzak erabiltzen ikasten ari dira. Hartara, hainbat kulturak bizirik iraun dute beren osotasunean, eta aurrera egiten ari dira berriro ere.

Alabaina, Europako hizkuntza batzuk ez daude egoera horretan. Are gehiago, zenbait hizkuntzaren hiztunen kopurua etengabe egiten ari da behera, eta, joera hori alderantzikatzen ez badugu, hainbat eskualdetan mendeetan erabili izan dituzten eta eskualdearen nortasunaren osagaitzat dituzten hizkuntzak desagertu egingo dira halaberharrez.

Gutunaren sinatzaileei bildu zaizkien herrialdeek hizkuntza jakin batzuk babestea eta sustatzea erabaki dute. Izan ere, zein bere herrialdean tradizionalak izan diren hainbat hizkuntza baztertuta gelditzeko arriskuan daude.

Hizkuntzen erabilera eguneroko bizitzan

Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak eguneroko bizitzan babes-teko eta sustatzeko jarraibide zehatzak ematen ditu Gutunak.

Estatuek hizkuntza horietan eman behar dituzte hezkuntza- eta komu-nikazio-zerbitzuak (hala nola prentsa-, irrati- eta telebista-zerbitzuak), baita administrazio publikoko zerbitzuak ere.

Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak eguneroko bizitzako esparru guztietan erabiltzea bultzatzen du Gutunak: nahiz kaleko seinaleetan, nahiz osasun-zerbitzuetan, nahiz agintari publikoekiko harremanetan.

Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak

Biztanleriaren gehiengoak hitz egiten d(it)uenaz beste hizkuntzak babesten ditu Gutunak, nahiz eta hiztunen kopurua txikia izan. Alde horretatik, etorkinen hizkuntzak eta estatu bakoitzeko hizkuntzaren dia-lektoak ez ditu hartzen eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzatzat.

Arreta hizkuntzen erabileran jartzea

Hizkuntzak beraiek dira Gutunaren onuradunak, eta, horretarako, hizkuntzak bizitza publikoko eta pribatuko esparru guztietan erabili era-biltzera bultzatzen du Gutunak. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen hiztunek funtsezko eginkizuna dute helburu hori lortzeko bidean, eguneroko erabilera aktiboaren bidez bakarrik iraun baiteza-kete eta gara baitaitezke hizkuntzak.

Bakearen eta elkar ulertzearen aldeko ekarpena

Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen errespetua eta haien era-bilera sustatzea ez da estatu bakoitzeko hizkuntza ofizialen eta haiek ikasi beharraren kontrakoa. Alderantziz: gizartearen ongizatea handia-gotzen du eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak onartzeak eta haien hiztunak eta berezko kulturak errespetatzeak.

Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak eta haien berezko kulturak errespetatzeak ez ditu banantzen herrialdeak, batzen baizik, eta hizkuntza- eta kultura-jatorri ezberdina duen jendea bateratzeko modu onena eta, askotan, bakarra da.

Esparru komun bat Europako estatuentzat

Arreta eremu urriko hizkuntzen babesean jartzen duen nazioarteko tresna lotesle bakarra da Gutuna, eta onuragarria da sinatu duten estatuentzat, nazioartean onartutako esparru komun bat eskaintzen baitie hizkuntza-politika lantzeko. Halaber, aberasgarria da hizkuntzak praktikoki goratzeko.

Europako Kontseiluak gutxiengo nazionalak babesteko kezka du aspaldidanik, eta horren adierazgarri diren hainbat hitzarmenen artean dago Gutuna. Besteak beste, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena eta Gutxiengo Nazionalak Babesteko Esparru Hitzarmena ere daude hitzarmen horien artean.

Estatuen eta GKEen arteko lankidetzarako plataforma bat

Dagozkion hizkuntzen hitzunezko elkarlanean bakarrik gara daitezke hizkuntzen aldeko politikak, eta alderdi guztiek ateratzen dute etekina lankidetzaren horretatik. Azken batean, agintarien eta gizarte zibilaren arteko zuzeneko elkarrekin jardunaren mendean dago Gutunaren ezarpenak arrakasta izatea.

Behaketa, oinarrizko urratsa

Gutunak bizirik eta garatzen jarraitzen duela ziurtatzen du estatuek Gutuna aplikatzen duten moduaren etengabeko behaketak. Hasierako fasean ere, behaketa-prozesuak hizkuntza-politiken ahalmenaren edo gabezien kontzientzia harrarazi die askotan agintariei, eta agintarien eta dagozkion hizkuntzen hitzunen artean harreman eraikitzaileak sortzeko ekarpena ere egin du. Halaber, herrialdeetako hizkuntzak erabiltzen dituzten taldeen artean ere sortu dira harremanak.

Gurpil baten erdian

Hobekuntza ugari izan dira dagoeneko Gutuna ezartzeko lehenbiziko faseetan, eta hainbat arazo konpondu dira ondoren ere. Gurpil baten erdian dago Gutuna, eta hizkuntza guztiak babesteko eta haietzako baldintza onak sustatzeko, haiek loratzen laguntzeko eta Europako hizkuntza-aniztasuna sendotzeko sortu da gurpila.



Elkarrizketa eraikitzaile bat

Europako Kontseiluak sortutako ituna da Gutuna, eta Kontseiluak etengabe behatzen dio haren ezarpenari.

Europako Kontseiluaren beste hitzarmen asko bezala, bi ikuspegitatik behatzen dio Kontseiluak ezarpenari. Batetik, herrialdeek beraiek txosten bat egiten dute ituna ezartzeko moduari buruz.

Bestetik, batzorde independente batek behatzen dio ezarpenari, eta Europako Kontseiluko kide diren estatuetakoko atzerri-ministroek izendatutako adituek osatzen dute batzordea.

Alderdi guztiek hartzen dute parte behaketa-prozesuan: gobernuen ordezkariak, administrazioek, GKEek eta dagozkion hizkuntzen hiztunen beste ordezkari batzuek. Hartara, etengabeko elkarrizketarako bilgune bat dute alderdi guztiek, eta ezarpen-prozesuaren ardatz dira hiztunak beraiek.

Europako Kontseilua

Adituen Batzordea

Adituen Batzordeak behatzen dio etengabe estatuek Gutuna ezartzeko moduari. Hain zuzen ere, estatuek aurkezten duten txosten bakoitza aztertzen du Batzordeak eta, azterketa horretan oinarrituta, txosten bat prestatzen du Europako Kontseiluko Ministro Kontseiluarentzat.

Estatu bakoitzean legez ezarritako taldeek eta elkarteek estatuek hartzen dituzten neurriei buruzko gaietara erakar dezakete Adituen Batzordearen arreta.

Azterketan oinarritutako txosten hori prestatzeko, Batzordearen ordezkariak estatuak bisitatu ohi dituzte (bertatik bertarako bisitak egin ohi dituzte), informazio gehiago biltzeko administrazio eskudunarengandik eta dagozkion hizkuntzen hiztunen ordezkariengandik. Gutunak bizirik eta garatzen jarraitzen duela ziurtatzen du horrek.

Ministro Kontseilua

Adituen Batzordeak egiten duen azterketan oinarrituta, Ministro Kontseiluak gomendioak ematen dizkie Gutuna berretsi duten estatuetako gobernuei –Europako Kontseiluko kide diren estatuetako atzerri-ministroek osatzen dute Batzordea –. Aginpide gehien duten itunaren tresnak dira Ministro Kontseiluaren gomendioak. Hainbat estatuk agudo erantzun diete, eta estatu askotako politiketan izan dute eragina gomendioek.

Jardunbide gardena

Gutuna ezartzeko prozesua gardena da, garrantzitsua baita esparru honetan metatzen den ezagutza biltzea eta banatzea.

Estatuen txostenak –hiru urtean behin aurkezten dituzte–, Adituen Batzordeak txostenoi buruz egiten dituen ebaluazioak eta Ministro Kontseiluak ematen dituen gomendioak Europako Kontseiluaren web-orrian eskuragarri daude, eta guztiok ikusteko moduan daude.

Estatuak

Gutuna sinatzen eta berresten dute estatuak, eta hainbat neurri hartzen dituzte, Gutuneko III. zatiak babesten dituen hizkuntzak babesteko eta sustatzeko –Gutunak xedatzen dituen 68 neurrietatik 35 hartu behar dituzte gutxienez–.

Gutuna berretsi eta urtebete igaro baino lehen, Gutuneko II. zatiarekin bat ezarritako politikei eta III. zatiko xedapenen artean onartzen dituzten xedapenak aplikatzeko hartutako neurriei buruzko lehenengo txostena aurkezten dute estatuak.

Hiru urtean behin aurkezten dituzte hurrengo txostenak. Txostenak prestatzeko, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen hiztunen ordezkariak galdetu ohi diete estatuak, eta oso komenigarria da hori, estatuak eta hiztunek hobeto elkar uler dezaten baitakar eta, askotan, arazoak konpontzen baititu hori egite hutsak.

Txostenak argitaratzera behartuta daude estatuak, eta Gutunari buruzko web-orrian ere ateratzen dira argitara.

Europako Kontseiluak mintegiak edo bilerak antola ditzake, estatuak gutuna berresteko prestatzeko. Estatuak beraiek ere antola ditzakete bilerak, txostenak prestatzeko eta txostenak zabaltzeko prozesuen esparruan. Litekeena da Adituen Batzordeak estatuen txostenak aztertzeko egiten dituen txostenei eta Europako Kontseiluko Ministro Kontseiluak onartzen dituen gomendioei buruzko informazioa zabaltzeko prozesuen esparruan ere antolatzea mintegiak edo bilerak.

GKEak eta hiztunen beste ordezkari batzuk

Estatuak eta, Gutunaren Idazkaritzaren bidez, Europako Kontseilua Gutunaren ezarpenari buruzko gaiez noiznahi informatzera deitzen ditu Europako Kontseiluak GKEak eta dagozkion hizkuntzen hiztunen beste ordezkari batzuk, eta estatuak aurkezten dituzten txostenen prestakuntzan modu aktibo batean parte hartzera ere deitzen ditu.

Estatuak txostenak aurkeztu ondoko behaketa-prozesuetan, Europako Kontseiluak GKEei eta dagozkion hizkuntzen hiztunen beste ordezkari batzuei galdetzen die, eta, prozesu horien esparruan, Gutunaren Idazkaritza itunaren ezarpenari buruzko gaiez modu aktibo batean informatzeko ekimena ere har dezakete GKEek eta dagozkion hizkuntzen hiztunen ordezkariak.

Gutuna, laburbilduta





Gutunaren egitura

I. zatia

I. zatiak Gutunaren esparrua zehazten du.

II. zatia

II. zatiak Gutunaren “espiritua” adierazten du, eta eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak kultura-ondarearen adierazpentzat onartzea da muina. II. zatiko xedapenak estatuetan erabili izan diren hizkuntza guztiei dagozkie.

III. zatia

III. zatiko xedapenak xeheagoak dira, eta haien esparruan zer hizkuntza sartu behar diren adierazten dute estatuak, esplizituki. Hizkuntza bakoitza babes-teko eta sustatzeko 68 xedapenetatik gutxienez 35 ezartzeko konpromisoa hartzen dute Estatuak.

IV. zatia

Gutunaren behaketa Gutuna ezartzeko prozesuaren funtsezko osagaia da, eta IV zatiak zehazten ditu behaketa eta Gutunaren aplikazioari buruzko beste gai batzuk.

V. zatia

Gutuneko V. zatiak Gutuna indarrean noiz sartzen den eta hura sinatzeari eta berresteari buruzko hainbat gai zehazten ditu.

II. ZATIA

HIZKUNTZA GUZTIEI APLIKA DIEZAZKIEKEGUN ZAZPI PRINTZIOPIO

Gutuneko II. zatia herrialderen batean hitz egin izan dituzten eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza guztiei dagokie, estatuek III. zatiko xedapenen esparruan babesteko aukeratzan dituzten ala ez gorabehera. Oinarrizko printzipio hauek aplikatu behar dira II. zatiaren esparruan:

- Gutunaren muina eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak **kultura-ondarearen adierazpentzat** onartzea eta, hizkuntzok sustatzeko, **ekintza irmoaren beharra** dagoela aitortzea da. Gutuna sinatu duten estatu asko lehen herrialdearen kultura- eta hizkuntza-ondarearen osagaitzat hartzen ez zituzten hizkuntzak babesten eta sustatzen ari dira egun.
- Bestalde, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen **eremu geografikoa errespetatzeko** eskatzen die Gutunak estatuei. Praktikan, printzipio hori aplikatzen da, adibidez, estatuek muga administratiboak aldatzeko asmoa dutenean eta aldaketak txarrerako eragina duenean eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan.
- Gutunaren oinarrizko printzipioetako bat da hizkuntzak ez direla mugatu behar esparru pribatura. Aitzitik, bizitza publikoan ere sustatu behar da hizkuntzen erabilera. Printzipio horretan oinarrituta, estatuko eta tokiko agintariek **bizitza publikoko** esparru guztietan (hala nola hezkuntzan, administrazioan, epaitegietan, komunikabideetan eta ekonomia-munduan) hizkuntza erabiltzeko eremu berriak sortu dituzte.
- Edozein hizkuntza garatzeko, **hezkuntza** ezinbestekoa da, maila guztietan. Eskualdeetako edo eremu urriko beren hizkuntza guztiak irakasteko eta ikasteko bide eta bitarteko egokiak eskaintzeko eskatzen die Gutunak estatuei, eta, hartara, hobekuntza asko izan dira hezkuntza eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan ematen edo hizkuntzok (baita III. zatiko xedapenek babesten ez dituztenak) irakasgaitzat lantzen.
- Gutunaren espiritua hizkuntzen aldekoa da, eta hizkuntzak garatzeko bide onuragarri eta eraikitzaileak ditu helburu. Horretarako, beharrezkoa da herrialdeetako hizkuntzak erabiltzen dituzten talde guztiek (direla gehiengoaren hizkuntzak, eskualdeetako hizkuntzak edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen dituztenek) **elkar uler dezaten**

bultzatzea. Hizkuntzen errespetuaren, ulermenaren eta onespeneraren barneratzean datza Gutunaren muina, baina, hala ere, Gutunak argi eta garbi eskatzen die estatuei hizkuntzen erabileran inolako bereizketa, bazterketa, murriztapen edo lehentasun bidegaberik ezartzea debeka dezaten.

- **Komunikabideen** eginkizuna funtsezkoa da elkar ulertzea eta besteren kulturen eta hizkuntzen errespetua bultzatzeko. Alde horretatik, komunikabideak helburu hori lortzera bultzatzeko eskatzen die Gutunak estatuei.

- Askotan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen hiztunek estatu ahaidetu bat dute: haien hizkuntza erabiltzen dute estatu horretan, eta, gainera, estatuko hizkuntza nagusia da askotan. Horregatik, **herrialdeen mugez haraindiko trukeak** modu aktibo batean bultzatzeko eskatzen die Gutunak estatuei. Askotariko trukeak izan daitezke, hala nola komunikabideak eskuragarri jartzea, kultura-harremanak eta hizkuntzen curriculumak prestatzeko lanakidetzak.

III. ZATIA

BIZITZA PUBLIKOKO ZAZPI ESPARRUTARAKO 98 NEURRIKO AUKERA

Gutuneko III. zatiak 68 artikulua biltzen ditu eta, guztira, 98 neurri biltzen ditu, zati horrek berak babestu beharrekotzat ezartzen dituen hizkuntzak sustatzeko. Estatuak 35 neurri hartu behar dituzte gutxienez, bizitza publikoko sei esparrutan gutxienez, hizkuntza bakoitza babesteko, baina, Gutunaren espirituari jarraiki, hizkuntza gehienak babesteko, gutxienekoaren baino gehiagoren alde egin dute estatuak. Praktikan, zera esan nahi du horrek, besteak beste:

Hezkuntza

- Hezkuntza osoa haien hizkuntzan ematen duen edo, gutxienez, haien hizkuntza irakasgaitzat lantzen duen eskola batera eraman ditzakete seme-alabak hiztunek, maila garrantzitsu guztietan: eskolaurretik unibertsitatera bitartean.
- Hezkuntza hori ematera eta irakasleak behar bezala prestatuta daudela ziurtatzera behartuta daude estatuak.

Justizia

- Interpretaziorako edo itzulpenarako Kostu gehigarriak ordaindu behar izan gabe, hiztunek beren hizkuntza erabil dezakete epaitegietan.
- Estatuak ziurtatu behar du eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan idatzitako dokumentuak baliozkoak direla epaitegietan.

Administrazioko agintariekiko harremanak

- Hiztunek beren hizkuntzan bete ditzakete inprimakiak, beren hizkuntzan izan dezakete posta bidezko harremana agintariekin eta beren hizkuntzan erabil ditzakete beren izenak eta toki-izenak, eta seinaleak haien hizkuntzan daude.
- Estatuak ziurtatu behar du administrazioak gaitasuna duela zerbitzua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan emateko.

Komunikabideak

- Haien hizkuntza erabiltzen duten irrati- eta telebista-kateak eta programen emankizun erregularrak dituzte hiztunek, zerbitzu publikoek edo etxe pribatuak ematen dituztenak. Halaber, eremu urriko hizkuntzetan idatzitako egunkariak irakur ditzakete eta eremu urriko hizkuntzetan egindako ikus-entzunezko lanak dituzte eskura.
- Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan egiten diren emankizunak babestera behartuta daude estatuak, irrati- eta telebista-zerbitzu publikoen esparruan, edo etxe pribatuak zerbitzu horiek eman ditzaten bultzatzera, eta beste komunikabide batzuen ekoizpenak egokiro sustatzera.

Kultura-jarduerak

- Sortzen diren kultura-jarduerak, liburutegiak eta liburuen argitalpena beren hizkuntzan izan ditzakete hiztunek eta terminologia beren hizkuntzan gara dezakete.
- Estatuak konpromisoa hartzen dute askotariko kultura-jarduerak sustatzeko eta eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen hiztunen ordezkariak kultura-jardueren plangintzan parte hartzen dutela ziurtatzeko

Ekonomia- eta gizarte-mundua

- Hiztunek beren hizkuntza erabil dezakete gizarte-babesa eta -laguntza eskatzen dutenean, eta eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera bultzatzen da ekonomia-munduko esparru guztietan.
- Lantokian eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzeko muga guztiak deuseztatzea behartuta daude estatuak, arrazoi praktikoek bitartez argi eta garbi argudiatu ezin badira.


Herrialdeen mugez haraindiko trukeak

- Mugez haraindiko telebista eta irratiak, baterako kultura-jarduerak eta haien hizkuntza erabiltzen duten ondoko herrialdeekiko mugak irekita izatearen ondoriozko beste hobekuntza batzuk dituzte hiztunek.
- Mugez haraindiko jarduerak sustatzeko konpromisoa hartzen dute estatuak, eta, horretarako, beharrezkoa bada, hitzarmenak egitekoa ondoko herrialdeekin.

Gutunak aldaketa eragin dezake eguneroko bizitzan

*Gutunak askotariko
eragina du eskualdeetako
edo eremu urriko hizkuntzek
eguneroko bizitzan duten egoeran.*





Hiztunek funtsezko eginkizuna dute

Berebiziko garrantzia du Gutuna eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko prozesutzat hartzeak, eta, alde handiz, Gutunak babesten dituen hizkuntzen hiztunek betetzen dute eginkizunik garrantzitsuena prozesu horren esparruan. Eguneroko bizitza pribatuan eta publikoan erabiltzearen mendean dago hizkuntzen etorkizuna; hezkuntzaren, komunikabideen eguneroko erabileraren eta kultura-jardueren alorrean egiten ditugun aukeren mendean dago; administrazioan eta agintariekiko harremanetan, ahal dela, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzeko aukera garbiaren mendean dago. Ekarpen hori egin ezean egunero Europako hizkuntza-aniztasunari, zentzugabeak izango dira beste ahaleginak.

Hona Gutunak jendearen eguneroko bizitzan eragin dituen aldaketen zenbait adibide:

- Bere hizkuntza ikasi eta hitz egin dezake eskolan.
- Inprimaki ofizialak bere hizkuntzan bete ditzake.
- Kaleko seinaleak eta leku-izenak haren hizkuntzan daude.
- Bere hizkuntzan entzun dezake irratia, ikus dezake telebista edo irakur ditzake egunkariak.
- Loratzen ari den kultura batez goza dezake eta bere hizkuntzan sortutako literatura-, antzerki- eta bideo-lanak, kontzertuak eta jaialdiak ditu, bere kultura erakusten dutenak.



Parte-hartzaile aktiboek gauzatzen duten prozesu bat da Gutuna

- Estatuetan
- Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak hitz egiten dituzten komunitateetan
- Europa osoan

**Hizkuntzak ez dira higitzen. Aitzitik,
erabilerak indartu egiten ditu.
Erabili hizkuntza, ez galdu!**

Hauek dituzu

Gutunari buruzko web-orrian:

- Gutuna sinatu eta berretsi duten estatuen zerrenda.
- Nola aplikatzen den Gutuna estatu bakoitzean hizkuntza bakoitza babesteko.
- Estatuak aldi-aldi aurkezten dituzten txosten guztiak.
- Adituen Batzordeak estatuak aurkezten dituzten txostenak aztertzeko egiten dituen txosten guztiak.
- Europako Kontseiluko Ministro Kontseiluak estatuei egiten dizkien gomendioak.
- Gutunari buruzko beste iturri eta dokumentazio batzuetarako estekak.
- Gutunaren aplikazioari eta aldi-aldi aurkeztu beharreko txostenen prestakuntzari buruzko jarraibideak eta kontrol-zerrendak agintarientzat eta GKEentzat.
- Gutunaren aplikazioari buruzko albisteak eta informazioa.
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren testu osoa eta hura azaltzeko txostena.



Halaber, posta elektroniko,
posta arrunt edo telefono bidez,
Idazkaritzarekin harremanetan jar zaitezke:

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren Idazkaritza

Zuzendaritza Nagusia IV
Hezkuntza, Kultura eta Ondarea, Gazteria eta Kirola

Europako Kontseilua
F-67075 Strasbourg Cedex
Telefono-zk. (harrera): +33 (0)3 88 41 20 00
Helbide elektronikoa: minlang.secretariat@coe.int

